



Esp. kodea: 2025DKRE0005

Gaia: 5. KREDITU ALDAKETA - KREDITU  
GEHIGARRIAK-PLENO  
Hasiera eguna: 2025/06/18

## ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Udaleko Osoko Bilkurak, 2025eko uztailaren 15ean egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

### “KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN 5. KREDITU-ALDAKETA ONARTZEA (2025DKRE0005).”

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 20 bilkuran daudela, Udaleko Osoko Bilkurak, aldeko 20 botoekin (EH BILDU, EAJ-PNV, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK eta ELKARREKIN ARRASATE), Ogasun batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Arrasateko Udalaren aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta proposaturiko kreditu aldaketek finantzaketa nahikoa eta egokia dutela kontuan hartuz, Batzorde honek EH-BILDU udal taldeko ordezkariaren aldeko botoekin, eta EAJ-PNVKO ETA PSE-EEko udal taldeetako ordezkarien abstentzioarekin, Udalbatzari akordio hauek hartzea proposatzen dio:

**LEHENENA.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatekoa (2025DKRE0005), 1.259.300,00 eurokoak, proposamenean adierazten diren partiden xehetasunarekin eta kapituluka laburpen honen arabera:

|                                                                                          |                                                         |              |                          |  |
|------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------|--------------|--------------------------|--|
| <b>Kodea</b>                                                                             | H25/00843                                               | <b>Udala</b> | Arrasate/Mondragón       |  |
| <b>Data</b>                                                                              | 2025/uzt./16                                            | <b>CUDO</b>  | 000.0055.AAA1CFKT.H.mPA5 |  |
| <b>URL</b>                                                                               | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1CFKTH.mPA5 |              |                          |  |
| Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia |                                                         |              |                          |  |



Esp. kodea: 2025DKRE0005

Gaia: 5. KREDITU ALDAKETA - KREDITU  
GEHIGARRIAK-PLENO  
Hasiera eguna: 2025/06/18

### KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapitulua                   | Izena                      | Gehikuntzak  |
|-----------------------------|----------------------------|--------------|
| 2                           | ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK   | 318.000,00   |
| 6                           | INBERTSIOAK                | 933.500,00   |
| 7                           | KAPITAL TRANSFERENTZIAK    | 6.000,00     |
| 8                           | FINANTZ AKTIBOEN ALDAKETAK | 1.800,00     |
| KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA |                            | 1.259.300,00 |

### FINANTZAKETA

| Kapitulua    | Izena                      | Zenbatekoa   |
|--------------|----------------------------|--------------|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA | 1.259.300,00 |
| GUZTIRA      |                            | 1.259.300,00 |

**BIGARRENA.-** Aipatu espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

**HIRUGARRENA.-** Jendaurreko epean ez bada aurkezten inolako erreklamaziorik, hasierako akordioa kontsideratzea behinbetikoz onartua.”

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2025eko uztailaren 16an.

OE

Alkatea

|                                                                                          |                                                                                                                               |              |                          |                                                                                       |
|------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Kodea</b>                                                                             | H25/00843                                                                                                                     | <b>Udala</b> | Arrasate/Mondragón       |  |
| <b>Data</b>                                                                              | 2025/uzt./16                                                                                                                  | <b>CUDO</b>  | 000.0055.AAA1CFKT.H.mPA5 |                                                                                       |
| <b>URL</b>                                                                               | <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1CFKTH.mPA5">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1CFKTH.mPA5</a> |              |                          |                                                                                       |
| Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia |                                                                                                                               |              |                          |                                                                                       |